

**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA
DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA**

2017-12-03 Europa Jauregia – Palacio Europa 03-12-2017

Lehendakariaren hitzaldia –Discurso del Lehendakari

Egun on eta eskerrik asko igande goiz batean, ere, euskararen aldeko ekitaldi hau konpartitzeagatik.

Zirraragarria da Gasteizko Europa Jauregi honetan elkartu gaituen **ilusio** hau konpartitzea.

Ilusioa, iraganari begiratzen diogunean.

Azken hamarkadotako aldaketa nabarmentzekoa izan da. Badira 68 urte Euskararen Nazioarteko Eguna lehen aldiz ospatu zenetik, Eusko Ikaskuntzaren ekimenez.

Harrezkeroztik, zeharo aldatu da euskararen egoera, batik bat azken hiru hamarkadotan.

Epe horretan 223.000 hiztun gehitu ditugu. Ondorioz, euskaraz egiten dutenen profila gaztetu egin da. Sekulako aldaketa bizi izan dugu.

Gure “hizkuntz zaharrak” egokitzen asmatu du.

Askoren artean egindako ahaleginagatik, auzolanean aritzeagatik, esan dezakegu gure hizkuntza XXIgarren mendearen atarira sendo eta osasuntsu heldu dela.

Ilusioa sentitzen dugu iraganari begiratzean, baita orainari begiratzean ere

Euskararen ezagutza biderkatzea lortu dugu erakundeen lanari esker, euskalgintzaren lanari esker eta, batez ere, hiritarren atxikimenduari esker.

Horrekin batera, euskararekiko jarrerak inoiz baino positiboagoak dira. Euskarak prestigioa irabazi du, euskal gizartearen gehiengo handi eta zabal bat euskararen etorkizuna bermatzearen alde dago.

Gure “hizkuntz zaharrak” gizartearen babesa irabazi du.

Ilusioa, etorkizunari begiratzen diogunean ere.

Testuinguru berri batera ekarri dugu gure hizkuntza. Errealitate berri honetan, erronka berriak daude. Badakigu globalizazio eta uniformizazio garai hauetan haizea ez dugula beti lagun izango eta olatu guztiak ez direla aldekoak izango. Horregatik, traineru onenetan legez, elkarrekin egin beharko dugu arraun, sinkronizatuta, batera. Aurrera egin nahi badugu, batzuetan korrontearen kontra era jardun beharko dugu.

Inoiz izan ditugun baldintzarik onenak ditugu denok aldi berean arraun egiteko. Horren adibiderik onena da Euskaraldia, gaur denon ahotan egon den proiektua.

Euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai diren herritarrak izan dira ekimen horren protagonistak. Horretan ere auzolana behar beharrezkoa izan da eta izaten jarraituko du.

Hizkuntza ohiturak aldatu egin behar ditugu, inertziak apurtu, euskarazko hizkuntza erabilera bultzatzeko.

Ezberdinen arteko lana egin behar dugu, euskararen oraina eta etorkizuna irabazteko.

Urte asko baditu ere, gure “hizkuntz zaharrak” gazte itxura dauka gaur egun. Gazterik grinatsuenak bezala, etorkizunari gogo biziz heltzeko prest dago.

Gure “hizkuntz zaharra” gaztea da.

Ospatu dezagun Euskararen egunean, Euskaraldian eta urte bakoitzeko 365 egunetan.

Eskerrik asko!